



Hezkuntza Proiektua kirol arloan

Proyecto Educativo en el área deportiva

2007ko iraila



Axular Lizeoko kirol arloaren hezkuntz egitasmoa

AXULAR LIZEOKO **KIROL ARLOAREN** **HEZKUNTZ EGITASMOA**

Axular Lizeoak hezkuntza bere osotasunean hartzen du, ikaslearen garapen fisiko eta intelektualak interes berberaz zainduz eta bultzatuz.

Ondorioz, kirola ez da osagai bat bezala hartzen, hezkuntzaren atal nahitaezkoa baizik, eta irakasle, guraso eta ikasleek horrela ulertu behar dute.

Bide batez, kirola taldean eta lehiaketa bezala praktikatzen denean, baloreak jolas moduan jasotzeko erabiliko da. Arlo honetan ikastolaren zeregin eta eragina zailagoa da. Gurasoen lan hezitzailearen osagarri bezala ulertuko litzateke.

GORPUTZ ETA KIROL HEZIKETAREN MISIOA

Ikastolaren hezkuntz egitasmoaren barnean, ikaslearen garapen fisiko, psikologiko eta afektiboan laguntza ematea izango da bere helburua. Horrela, bere gorputza eta posibilitateak aiseago ezagutuko ditu, bere bizitzan ohitura osasuntsuak hartu ahal izango ditu eta jolasaren bitartez giza baloreak eta etikoak jasa eta onartuko ditu.

Helburuak

1. Bere gorputzaren ezagupenaren garapenean lagundu, mugimenduaren bitartez. Horrela haurrak bere posibilitateak deskubritu, jaso eta, epe luzean, erabiliko ditu bere bizitzan.
2. Garbitasunaren zentzua garatu eta bizitzarako ohitura osasuntsuak jasotzen lagundu. Ohitura hauek txikitandik jasota, bereak egingo ditu heldutasunean eta, agian, adoleszentzian.
3. Euskaren erabilpena ekintza ludikoetan bultzatu, gure eguneroko bizitzan normaltasunez erabiltzen ohitu daitezen.

Lehiaketaren bitartez,

1. Taldean lan egiteko gaitasuna bultzatu, beren heldutasunaren garairako prestatuz (kontuan harturik bakarko lanak gero eta frakaso handiagoak dakartzala gure mundu honetan) ahaztu gabe norberaren aportazioak.
2. Errespetu eta begirunearen ideia bultzatu bere taldekoekin, monitoreekin, aurkariekin..., beste taldekoa ez dezan ikus etsai bat bezala, jolaserako behar duen partaide ezinbestekoa baizik. Horrela, belaunaldi berrietarako tolerantzia indartuko dugu.
3. Gure jokalariei jolas arauak eta epailearen figura errespetatzen erakutsi, berauek gabe ezin baita jolasik burutu eta, bide batez, gure ikasleak gizarte demokratiko batera egokitu, lege eta arauak gehiengoak onartuak baitira.
4. Taldearekiko norberaren arduraren zentzua bultzatu eta bizitzak eskainiko dizkion egoera zailagoi ondo erantzuten erakutsi.

Axular Lizeoko kirol arloaren hezkuntz egitasmoa

- Taldearekiko eta buruarekiko ardura eta begirunea.
 - Hartutako konpromisoen betebeharra.
 - Lanari lehentasuna
5. Talde lana:
- Gure kirolariengan talde lanaren ideia piztuko dugu, edota hobeto esanda, taldearentzako lanarena.
 - Gure seme-alabek bizi beharko duten mundu konplexu eta korapilatsuak behartuko ditu taldean aritzera. Taldean bakoitzak bere lana burutuko du, jakinda besteek dagokiena egiten dutela, eta norberak bere aldetik joz gero, frakasatu egingo duela.
 - Bide batez, taldean lan egitean, bakoitzari egokia zaion egin beharra emango zaio, bere lanaren emaitzak baloratuz eta zorionduz, lehiaketetan gertatzen diren diskriminazioak baztertuz.



Axular Lizeoko kirol arloaren hezkuntz egitasmoa

I. ATALA: Kirol arloaren antolaketa eta egitura.

- **Artezkari-tza Kontseilua**

Ikastolan maila gorena duen erakundea da eta, beraz, kirol arduradunak kirolaren egoera eta sor litezkeen arazoak jakinaraziko dizkio Artezkari-tza Kontseiluari beharrezkoa ikusten duenean.

- **Ikastolako zuzendaria**

Artezkari-tza Kontseiluak eman dion agintea dela medio, kirol arduradunaren lana eta egitasmoaren burutzea gainbegiratu-ko ditu.

- **Kirol Arduraduna**

- Zuzendariak proposatuta, Artezkari-tza Kontseiluak izendatuko du.
- Egitasmo hau betetzeaz arduratuko da, talde eta entrenatzaileen lanak gainbegiratu-ko ditu.
- Kirol programa eta diru aurrekontuak landu eta aurkeztuko ditu Artezkari-tza Kontseiluak onar ditzan.
- Urteko memoriak egin eta aurkeztuko ditu.
- Kirol arloari dagokion neurrian, behar den toki eta erakundeetan Axular Lizeoaren ordezkaria izango da.
- Entrenatzaile eta monitoreak izendatuko ditu.
- Irailean bilduko dira monitoreekin proiektua azaltzeko eta baita beren eginkizunak ere. Lanerako beharko dituzten pautak eta beharko diren laguntzak emango zaizkie. Bereganatu beharko dute talde baten arduradunak direla eta zenbait kasutan espientzia gutxikoak. Urtean zehar beharrezkoak ikusten diren bilerak egingo dira.

- **Monitore-entrenatzaileak**

- Egitasmo hau talde bakoitzean bete dadin arduradun zuzenak dira.
- Ardura berezia eskainiko diote kirol espirituari, kontuan harturik arlo hau hezkuntz egitasmo orokorraren atal bat dela.
- Monitoreek berebiziko garrantzia hartuko dute taldearen euskararen erabileran bera eredugarria izango delarik.
- Ahal diren jokalaria gehienak konbokatuak izango dira. Denek jokatu beharko dute.
- Taldekideen puntualtasuna betetzen arduratuko da.
- Partida aurretik denek beroketa ariketak egin beharko dituzte. Bide batez, talde zentzua sendotuko dugu.
- Bakoitzari, bete dezakeen lan bat jarriko zaio zelaian betetzeko. Egin duenagatik zoriondua izango da, nahiz haundia nahiz txikia izan bere ekarpena. Batez ere, gaitasun gutxien dutenak zorionduak izango dira.
- Hobekien kolokatuta dagoen taldekidearekin jolasten erakutsiko zaio.
- Gehiago zorionduko da pase on bat egiten duena, saskia edo gola sartzen duena baino.
- Zoriondua izango da atzelaria, aurkakoaren posizioaz arduratzen baita, ez bakarrik baloiaz, azken finean, taldearen onerako sakrifikatu egiten delako.
- Baloiarekin berekoia denak eta oso gutxi pasatzen duenak bankilora joan beharko du, nahiz eta taldekako figura izan. Dena den, atal hau ondo aztertu beharko da haurraren garapen intelektuala kontutan harturik.

II. ATALA: Axular Lizeoaren kirol arlorako Hezkuntza Egitasmoaren ideien garapen informala

1.- Bertako Kirol Eskola: (Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak).

1.1 HELBURU OROKORRA:

Mugimenduaren bitartez garapen psikologiko, ezagupen, motore eta afektiboa bultzatu. Horrela bere gorputzak eskaintzen dizkion posibilitatez jabetuko da eta denboraren poderioz erabiltzeko gaitasuna izango du

1.2 OINARRIZKO IRIZPIDE DIDAKTIKOAK:

- ❑ Lana, batez ere, jolasaren bitartez gauzatuko da.
- ❑ Ikasleak berak, bakarrik burutu beharko ditu jarritako ariketak. Horrela, ausnartu, probatu eta ekin beharko dio lanari.
- ❑ Monitorea, ahal den neurrian, ikasleek proposatutako ideiak onartuko ditu, kirolaren praktika aberasgarriagoa izan dadin.
- ❑ Datozen urteetarako talde dinamikan sartzeko lehenengo urratsak emango ditu.

Larunbatetan ordubeteko saioetan ikasturtean zehar gauzatzen da.

1.3 LEHENENGO BI MAILETARAKO LAN UNITATEAK:

- Koordinazio Dinamiko Orokorra (desplazamendu, salto, birak, transporteak, goratzea,...).
- Gorputz Eskema (gorputzaren jarrera, lateralitatea, oreka, lasaitze ariketak, arnasketa,...).
- Zentzumen Oharpena (gauzen ezaugarrien analisia, zentzuen lanketa,...).
- Denboraren Oharpena (erritmoak, kadentziak, denboraren erregularakuntza, berregintzak,...).
- Gorputz Adierazpena (gorputzez adierazi, aurkeztu,...).
- Espazioaren Oharpena (elkarketak, sakabanaketak, distantzien neurrera, orientazioa, atze, aurre, gora, kanpora eta abarren kontzeptuak,...).
- Koordinazio Dinamiko Espezifikoa (maneuak, gidatzeak, jaurtiketak, harrerak,...).
- Espazio-Denboraren oharpenak (abiadurak, ibilbideak,...).

Axular Lizeoko kirol arloaren hezkuntz egitasmoa

2.- Kirol Eskolarra (LH3-DBH2)

- Helburu orokorra

Proiektuaren hasieran aipatutakoa da.

- Egitura

Mailaka antolatzen dira:

-LH3-4: Benjaminak.

-LH5-6: Alebinak.

-DBH1-2: Infantilak.

Azken kategoria hau zenbait kasutan federaturanzko joera hartzen ari da.

Kategoria guztietan Diputazioak jarritako irizpideei jarraitzen zaie, bi lehenengoetakoa polikiroltasunarena delarik.

- Kirol eskolaren antolaketa:

- ❑ Saio bakoitzaren iraupena 60 minutukoa izango da.
- ❑ Astean talde bakoitzak bi saio izango ditu.
- ❑ Taldeak, ahal den neurrian, gelaka egingo dira talde naturalak errespetatuz, selekzioen irizpideak ekidinez.
- ❑ Benjaminak eta Alebinak 17:00etatik 18:00ak arte entrenatuko dira. Beste kategorietakoak instalazioek ematen dituzten aukeren arabera.
- ❑ Ikasleren batek beste kirol aukeraren bat nahiko balu, Ikastolak zenbait klubekin hitzartuta ditu hainbat akordio eta saiatuko da ahalbideratzen kasu bakoitzeko nahia edo beharra.

3.- Kirol Federatua (DBH2tik aurrera)

- Helburu orokorra

Proiektuaren hasieran aipatutakoa da.

- Egitura

-DBH3-4: Kadeteak.

-Batxiler1-2: Jubenilak.

-Ikasle ohiak: Senior.

Azken honekin gurea berez jada ez diren ikasleei aukera eman nahi diegu kirol munduan jarrai dezaten.

Axular Lizeoko kirol arloaren hezkuntz egitasmoa

4.- Kirola lehiaketa bezala

Bere bitartez eta norberaren borondatezko aukera ludiko bezala, "Helburak" atalean aipaturiko puntuak lortzen saiatu behar da.

4.1 GARBITASUNAREN ZENTZUA ETA BIZITZAREN OHITURA OSASUNTSUAK:

- Ikastolak gaur egun egitura nahikoak ez ditu baina, ahal den neurrian, minimo batzuk bultzatu behar ditu. Entrenatzaileek arlo hau landu beharko dute. Batez ere, partido bukaerako dutxa eta erropa aldaketa zaindu beharko ditu, instalazioak ahalbideratzen badu.
- Erretzea, edatea... edota komenigarria ez den beste edozein ohitura ikasleen aurrean sahiestuko da, entrenatzailearen aldetik.
- Ikastolak eskaini egingo die ikasleei kirol miaketak burutzea.

4.2 EUSKARA:

Nahiz eta Axular Lizeoaren gaur egungo helburuak zabalagoak izan, bere sortzearen arrazoirik Euskararena izan da, gure hizkuntza suspertu eta indartzeko asmoz.

Ezin dugu onartu, ikasleek erlazioa dezaten Euskara ekintza akademikoarekin. Euskara gure bizitzan normaltasunean komunikatzeko ezinbesteko tresna bilakatu behar dugu denon artean.

Euskara beti present izango dugu kirol ekintzetan, eta euskaraz aritu beharko dugu, entrenatzaileek bere ardurapean helburu hau harturik.

- Kirolariei euskaraz hitz egitea bultzatuko zaie.
- Bere erabilera bultzatu eta saritu egingo dute kirolarien beste meritu eta ahalegintzat harturik, bi entrenamenduetan bai partidetan.
- Monitoreek eredugarriak izan behar dute.

4.3 JAZKERA:

Ekipo bakoitzak ezagutzera ematen duten sinboloak ditu. Horietako bat jazkera da.

Gure ekipaia hau da:

- Kamiseta zuria marra urdinez maukan.
- Galtza urdinak.
- Galtzerdi zuriak bi marra urdinekin.

Ekipaia ikasle bakoitzari ikasturte hasieran banatuko zaio, bere ardura izando delarik behar den bezala zaintzea. Ikasturte amaieran jaso egingo zaio.

Ikasle bakoitzari ekipaiei mantenurako urtero kuota txiki bat kobratuko zaio aldiko materiala berritzeko.

Txandalari buruz, saiatuko gara ikastolako erabil dezaten, aurrerantzean agian bere erabilpena derrigortuz.

Axular Lizeoko kirol arloaren hezkuntz egitasmoa

4.4 AURKARIA-JOLASKIDEA:

Agresibitatea gure gizartean oso present dago eta kezkarria da.
Edozein arazo xume larri bihurtzen dugu.
Tolerantziatasun galdua da.

Lehiaketak, ondo zuzendua, tolerantziaren zentzua piztu eta garatu dezake, nahiz eta askotan helburu garbiak ez ditugulako, enfrontamentura eramaten gaituen.

Ideia Zehatzak:

- ❑ Aurkakoa beti da jolaskidea, bera gabe ez dago partidarik, jolasik, dibertsiorik.
- ❑ Zelaian gogoz, nerbioz, ilusioz jolastu behar da. Lagun bezala izan nahi ditugunei irabazteko, agresibitate onez jokatu behar da.
- ❑ Seriotasun handiz jokatu dugu, irabazteko asmoz, baina jakinda jolasa besterik ez dela, emaitza edozein izan daitekeelarik. .
- ❑ Gure jokalariek beste ekipokoei partida bukatu ondoren eskua luzatuko diete, beti, emaitza edozein delarik.
- ❑ Partida amaitzerakoan, edo egokia den unean, entrenatzailearen helburu nagusietariko partidaren bertan gertatu diren gorabeherak desager daitezzen izango da. Hori guztia beste ekipoaren entrenatzailearekin batera saiaturiko daegiten.
- ❑ Beste ekipoarekin harreman gorabeheratsuak izatea frakasurik handiena bezala hartu beharko luke eskolako entrenatzaile batek baita jokalaria ere.

4.5 KIROLTASUNA

Azken garai honetan, helburuak edozein bitarteko onartzen duenaren ideia inposatzen ari da eta ez bakarrik kirol arloan, baita ekonomia, politika, gizarte, etabarreko arloetan ere. Bitartean balore etikoak beren indarra galtzen ari dira.

Gure ikasleak gizarte honetan murgildurik bizi dira, eta zenbaitetan entrenatzaileek egoera horietara eramaten dituzte.

Gauzak horrela, kirola erabili behar dugu gure ikasleek giza baloreak eta etikoak ikas eta barnera ditzaten giza bizitza posible izan dadin.

Ideia Zehatzak:

Arauek:

- Onartu ditugun jolas arauak benetan jasoak, hartuak izan behar dute, ez bakarrik "jasan ikasten ditugun bitartean eta ez bete ahal dugunean".
- Sakratuak dira eta beti leialak izango gara arauekin, nahiz eta ez betetzearen truke garaipen lortu.

Axular Lizeoko kirol arloaren hezkuntz egitasmoa

Epailea:

- Epailearekiko begirunea sakratua da beti eta salbuespenik gabe. Bera gabe jolasa ezinezkoa litzateke.
- Epailearen erabakiak gure okerrerako direnean, bai bere adinagatik, bai esperientzia ezagatik, edo beste edozein ziorerengatik, orduantxe da adierazi eta erakutsi behar dugunean epailearekiko begirunea, bidegabekoa iruditu arren.
- Epaileak txistua jotzerakoan protestarik gabe obeditu egin behar da, nahiz jokalaria zelaian egon, nahiz bankiloan.
- Epaileari protesta eginez gero, jokalaria berehala zelaitik irten beharko du, entrenatzaileak aginduta.
- Partida hasi aurretik ekipoko kapitainak epaileari eskua luzatuko dio.
- Entrenatzaileari ondo baderitzo komentarioren bat egin behar diola epaileari, edukazio osoz egingo dio. Aldez aurretik, beste ekipoko entrenatzaileari adierazi beharko dio guk zer ulertzen dugun kirolaz.

Arau administratiboak:

- Axularren aburuz, "administratiboki" irabazitako puntuak ez dira desiragarriak. Nahiago dugu jokuan jartzea zelaian, paperetan irabaztea baino, beti. Aldi berean, gure jokalariekiko bidegabekeria administratiboa baztertzen saiatuko gara.
- Beste ekipoak arazoren bat baleuka (fitxak ahaztu, jokalaria gutxi,...) eta horretan ikusiko ez bagenu tranparik, saiatuko ginatke gure aldetik arazo txiki horiek konpontzen jolasteko prest egonez, garrantzi gehiago emanez normare hitzez-hitz jartzen duenari baino.
- Arazoa gurea balitz, ez dugu tranpa txikirik ere egingo. Arazoa argi eta garbi azalduko dugu baita gure izpiritua ere. Beste ekipoaren erabakia onartuko dugu, hau edozein delarik.

4.6 ARDURA. NAHITA HARTUTAKO EGINBEHARREI BEGIRUNEA.

Gure ikasleak bizi diren munduan gauzak errazegi dituzte. Ez dute ardurak hartzeko posibilitate handirik ezta autodisziplina, sakrifizioaren, ... zentzua garatzeko aukerarik ere. Horrela zaila egiten zaie egoera okerragoetara egokitzea.

Kirola erabil dezakegu tasun horiek garatzeko.

Kirol lehiatua, ekintza boluntario bezala planteatzen da. Behin onartuz gero, seriotasun handiz hartu behar dugu eta eginbehar bihurtu.

Axular Lizeoko kirol arloaren hezkuntz egitasmoa

Ideia Zehatzak:

- Entrenamendu eta partidetara joatea beste jolaskideekiko ardura eta obligazioa da.
- Dauxkagun mugak seriotasun handiz azter ditzakegu, baina ez kapritxo.
- Puntueltasunak ikas egoeretan bezalakoa izan behar du.
- Entrenatzaileak ekipoaren ardura dauka eta jokalariek irakaslea bailitzan errespetatuko dute.
- Entrenamenduetan prest egon behar da "sufritzeko", korrika egiteko, kirola ez baita bakarrik jolasa.
- Partidan daukagun guztia eman behar dugu. Gogo guztia jartzen ez duten jokalariek ordezkatuak izan behar dute. Ez ditugu "figurak", zentzu txarrean, onartu behar.

Lortu behar dugun helburu bat, goi-mailetako ikasleek behe-mailetako ekipoen ardura daitezen da. Hau aurrera eramango dugu ikusten ditugunean ikasle horiek egokiak direla *Egitasmo* hau gauzatzeko. Honekin zera lortuko genuke garatzea:

- arduraren zentzua.
- heldutasunaren zentzua
- antolatze gaitasuna.
- aintzindari izateko gaitasuna.

Eta, bide batez, adieraziko lukete kirola ez dela "haurren gauza" eta nagusiek ere buru-belarri parte har dezaketela. Horrela proiektu honen gauzatzea erraztu eta bueltzatuko lukete eta ez litzateke hori guztia bihurtuko guraso eta maixuen "rollo" bezala.



Axular Lizeoko kirol arloaren hezkuntz egitasmoa

5.- Kirol lehiatua ez ofiziala

Ikastolako ikasleen ehuneko handi batek kirol ekintza "organizatueta" parte hartzen du.

Goi-mailakoekin ahal egin bereziak: egin beharko genituzke.

Haiekin denek kirol egitea lortzea askoz ere zailagoa da, urteetan onenen aukeraketa bat eman delako. Horri gehitu behar zaio adoleszentzian irrigarri izateari dioten beldurra. Bide batez, gure erronketako bat izan behar du neskek virola egin dezaten, modalitatea edozein delarik gurekin ez izan arren.

Axularren barruan, kirol eta ekintza ludikoen bitartez hau lor daiteke:

- Ikasle goaren ehunekorik handienak kirola egin dezan.
- Trebetasun gutxien dutenei kirol bideak: ireki, kirola dibertsio, jolasa bezala ulertuz, emaitzak kontuan hartu gabe.
- Kirol desberdinak erakutsi eta praktikatu, polarizazioak ekidinez.

6.- Kirola Axularri elkaturiko Klub batean

Izen ona duen Elkarte batekin etengabeko harremanak izateko formulak bilatzea gomendatzen dugu.

Lortu beharreko helburuak:

- Kirol instalakuntzak: Kontuan harturik Ikastola honek dituen instalazio urriak, beste kirol Elkarte batekin akordio batzuetara iritsi beharko genuke, non erabili ahal izango genituzkeen bere zelaiak, guretzat kostu handirik suposatzen gabe.
- Kirol eskaintza: Axularren tamainua ikusita, ezinezkoa da eskaintza zabala ematea, ezin dugu kirol pila bat ofertatu, arazoak izango genituzkeelako zelai, monitore,... aldetik. Horrela kirol elkartearekin akordioak izateak eskaintza zabalagoa ematea posibilitatzen digu guri eta ikasleei ere. Aldi berean, ikastolan ez dauden zenbait kirol praktikaketa posible izango du.
- Kirolaren praktikaren jarraipena: Kirol Elkarteak, kirola egiten jarraitu nahi duten gure ikasle guztiei kirolaren jarraipena ahalbiderratu egin behar die. Ikastolan kirola iragankorra dela kontuan hartu behar dugu. Beraz, Kirol Elkarteak bideak jartzen dizkie kirola egiten jarraitzeko. Hau batez ere, goi-mailetan eman beharko da, kirola beste intentsitate batez praktikatzeko delako.

Klubak izan behar dituen ezaugarriak:

Batez ere kontutan hartu behar ditugu:

- Klubaren sena: Axular Lizeoarekin bat datorren neurrian.
- Izen ona: Denborak emandako seriotasuna.
- Antolaketa egituratua: Denborak: emandako seriotasuna.
- Kirol eskeintza: Axularrekin osagarria.
- Gertutasuna: Bere instalazioen erabilpena eta joan-etorriak erraztuko dituen.

III. ATALA: Kirolekiko gurasoen ardura

Kirolarekiko gurasoek ardura oso handia dute.

Komenigarria izango litzateke tenporada hasi aurretik, beharra ikusiz gero, gurasoekin bilera eskutitz bat igortzea esplikatzuz zein den ikastolaren filosofia eta heziketa aldetik kirolarik ematen diogun garrantzia.

Tutoreekin dituzten bilerak ere erabil daitezke ideia hauek azaltzeko.

Gure lan guztia pikutara joan daiteke gurasoak, ikusle bezala, behar ez diren bezala portatzen badira.

Entrenatzaileak, kirol koordinadoreak eta, behar bada, zuzendariak lagundurik, atal hori zuzentasunez betetzen saiatuko dira.

Aldi berean, gurasoei, ahal duten neurrian, lagun dezaten eskatuko diegu:

- Joan-etorrietan lagunduz.
- Beren presentziaz, beren seme-alaben aurrean kirolaren garrantzia birbaieztatuz.
- Puntueltasuna zainduz.

eta edozein kasutan, eskatuz

- Ikusle bezala, behar bezalako jarrera izan dezaten, gure proiektuaren espiritua betetzen.
- Entrenatzaileekiko erabateko begirunea. Zenbaitetan, lagundu nahi dutenean entrenatzailearen agindupean jarriko dira.
- Entrenatzaile eta koordinatzaileari bere kezak azalduko dizkiete egon sor daitezkeen arazoak denon artean konponduz.

